# Carta de bienvenida

# *Ongi etorri gutuna*

A. Iceta

Presidenta de la SVNP



*Ainhoa Iceta*

Estimadas compañeras y compañeros:

Quiero dedicar las primeras líneas a agradecer la confianza que mostráis al encomendarme la tarea de presidir esta Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría a la que me siento muy honrada de pertenecer desde el comienzo de mi residencia y con la que he crecido como pediatra hasta la actualidad.

Es una Sociedad que se mantiene viva y ha ido evolucionando adecuándose a los tiempos gracias al buen hacer de los pediatras que han dedicado tiempo, esfuerzo y cariño en las juntas precedentes. La junta actual, liderada por la Dra. Itziar Astigarraga, ha tenido que enfrentarse a situaciones realmente complicadas debido a la pandemia, escenario difícil de imaginar en el momento de comenzar su andadura. Mi profundo agradecimiento y reconocimiento por su dedicación, por defender incluso en esos momentos de incertidumbre, el desarrollo de las competencias científicas de la especialidad y por ahondar en la visión integradora de la pediatría especializada y de calidad a nivel de la atención primaria y especializada.

En esta nueva etapa que comienzo con ilusión, trataré de poner empeño y la mejor voluntad en continuar con las líneas de trabajo ya consolidadas, a las que procuraremos entre todos los compañeros de la Junta, incorporar todo aquello que sea beneficioso para la salud de nuestros pacientes.

El momento actual de la pediatría tiene sus paradojas a las que nos tenemos que enfrentar. Nos encontramos con avances científicos que abren nuevos horizontes, pero al mismo tiempo, vivimos cambios sociales que afectan a la educación y los valores con los que crecen nuestros pacientes. Por un lado, nos toca vivir una época en la que despega la medicina personalizada, que se apoya en el diagnóstico de

*Lankide preziatuok:*

*Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet Euskal Herriko Pediatria Elkarte honetako lehendakari izatearen ardura eskainita nigan erakutsi duzuen konfiantzagatik. Elkarteko kide naiz egoiliar lanean hasi nintzenetik, eta harro nago horregatik; izan ere, elkartearekin batera pediatra gisa haziz joan bainaiz gaur egunera arte.*

*Elkarteak bizirik dirau, eta bilakatuz joan da, garai berrietara egokituz, aurreko batzordeetan denbora, ahalegina eta maitasuna eskaini dizkioten pediatren lan egokiari esker. Orain arteko batzordeak, Itziar Astigarraga buru zela, egoera benetan zailei aurre egin behar izan die pandemiaren ondorioz. Ibilbidea hasi zutenean ez zuen inork halakorik espero. Eskerrik beroena eta aitortza adierazi nahi dizkiet egindako lanagatik, ziurgabetasun-egoeretan ere espezialitatearen konpetentzia zientifikoen garapenaren alde egiteagatik, eta kalitatezko pediatria espezializatuaren ikuspegi integratzailean sakontzeagatik lehen arretaren eta arreta espezializatuaren mailan.*

*Ilusioz ekiten diot etapa berri honi. Saiatuko naiz jada sendotuta dauden lan-ildoei ahaleginez eta borondaterik onenarekin jarraipena ematen; eta batzordeko kide guztion artean, gure pazienteen osasunarentzat onuragarria den guztia gehituko diegu lan-ildo horiei.*

*Pediatriaren egungo egoeran askotariko paradoxei egin behar diegu aurre. Aurrerapen zientifikoek bide berriak zabaldu dituzte, baina, aldi berean, gure pazienteen hezkuntzan eta inguruko balioetan eragina duten aldaketa sozialak bizi ditugu. Alde batetik, medikuntza pertsonalizatua garatzen hasi den garaian bizi gara, eta horren oinarri dira diagnostiko zehatza eta tratamendu bereziak, kostu izugarria duten baina eraginkorrak diren diana-medikamentuak erabiltzen dituztenak (ez dakigu denboran iraunkorrak izango ote diren). Gainera, arnas birus sintzitialaren ondoriozko*

precisión, en los tratamientos específicos con fármacos diana de coste desorbitado, pero eficaces, veremos si sostenibles en el tiempo. En paralelo, acabamos de comenzar una campaña de prevención de bronquiolitis por VRS con un prometedor fármaco inmunomodulador qu,e quién sabe, puede cambiar el paradigma de las consultas de pediatría en época invernal. Pero, por otro lado, tenemos más adolescentes que nunca en tratamiento farmacológico con ansiolíticos por intentos autolíticos y el abuso sexual infantil se ha convertido en tema habitual en las consultas de atención primaria y en las salas de urgencias de pediatría de nuestros hospitales. Nuevos tiempos, nuevos retos.

Queda claro que, si miramos al futuro y si queremos contribuir a mejorar la salud de los niños y niñas de Euskadi y Navarra, tendremos que asumir los nuevos retos que se nos presenten e ir de la mano de las instituciones que tienen el foco puesto en la infancia, impulsar aquellas medidas que sirvan para proteger a nuestros menores y trabajar con los responsables sanitarios, para ofertar con el mayor rigor científico, la mejor asistencia posible a nuestros pacientes.

Para ello contamos con vosotros, los que vivís día a día la realidad de nuestros menores, a los que os animamos a compartir vuestras iniciativas y consideraciones, que trataremos de gestionar desde la honestidad y el compromiso.

Confío en que en esta nueva etapa consigamos logros que sean un aliciente para el desarrollo de nuestra profesión, que seguro que tendrán su reflejo en la infancia, que considero que es nuestra prioridad.

Recibid un cordial saludo.

*bronkiolitisari aurrea hartzeko kanpaina hasi berri dugu etorkizun handiko medikamentu immunomodulatzaile bat erabilita. Pediatriako kontsultetan neguan izaten den egoera alda dezake botika horrek. Baina, bestalde, inoiz baino nerabe gehiago ditugu antsiolitikoekin tratatuta beren burua zauritzen saiatzeagatik, eta haurren sexu-abusua ohiko gai bihurtu da lehen arretako kontsultetan eta gure ospitaletako pediatriako larrialdi-zerbitzuetan. Garai berriak, erronka berriak.*

*Etorkizunera begira jarrita, Euskadiko eta Nafarroako haurren osasuna hobetzen lagundu nahi badugu, argi dago erronka berriei aurre egin beharko diegula, eta haurtzaroaz arduratzen diren erakundeekin batera jardun beharko dugula; gure adin txikikoak babesteko neurriak bultzatu beharko ditugu, eta osasun-arloko arduradunekin egin beharko dugu lan, gure pazienteei ahalik eta zehaztasun zientifikorik handiena eta asistentziarik onena emateko.*

*Horretarako, zuen laguntza espero dugu, egunero bertatik bertara bizi baituzue gure adingabeen egoera. Ekimenak eta iritziak partekatzera animatzen zaituztegu. Zuen ekarpenak zintzotasunez eta konpromisoz kudeatzen saiatuko gara.*

*Etapa berri honetan gure lanbidearen garapenerako eragingarriak izango diren lorpenak gauzatuko ditugulakoan nago, eta haurrentzat onuragarriak izango direla uste dut, haiek baitira gure lehentasuna.*

*Jaso ezazue agur bero bat.*